

# THINK TANK

## BERRESKURAPEN BERDEARI BURUZKO EZTABAIDA TALDEA

Lanerako 2. dokumentua

2020ko 22 irailaren 22a

2. lan dokumentu honek jarraipena ematen dio 1. lan dokumentuarekin hasitako hausnarketari, berreskurapen berdearen erronkari erantzuteko Gipuzkoako Foru Aldundiak bere jardunaren oinarrien artean planteatutako lau proiekturen inguruan egindakoari. Berreskurapen berdeak egungo krisi egoerari konponbideak bilatzea planteatzen du, jasangarritasuna faktore garrantzitsu gisa integratuko dutenak. Horrela, think tank-a eztabaidarako gune gisa planteatu zen, proiektu horiek garatzen laguntzeko eta, horien bidez, ingurumen-iraunkortasunaren arazoari erantzunak bilatzeko.

Hauek ziren lau proiektuak:

- Gipuzkoa 2050: % 100 lurralde zirkularra
- Gazteak klimaren alde
- Gipuzkoarako fiskalitate berdea
- Klimaren aldeko ekintzaren liga

Uztailaren 14ko tailerrean egindako eztabaidaren ardatza proiektu horien baliozkotasuna egiaztatzea izan zen, Gipuzkoak berreskurapen berdearen inguruan dituen erronkei aurre egiteko. Galderari zuzenean erantzun zioten parte-hartzaile guztiek emandako erantzunak lerrotatuta zeuden «proiektu horiek behar bezala erantzun diezaiekete planteatutako erronkei» iritziarekin. Hala ere, baieztapen horrekin batera, beste iritzi<sup>1</sup> batzuen arabera zenbait gai garrantzitsu kanpoan geratu ziren, hala nola ekonomia eta enpresa munduarekiko lotura handiagoa, hezkuntza munduarekiko lotura sendoagoa edo proiektuetatik eratorritako inplikazioak tokiko mailan/maila globalean dimentsionatzen lagunduko duen esparrua.

Aurrekotik abiatuta, dokumentu honetan interpretatzen da lau proiektuak baliozkotuta geratu zirela think tank-aren eztabaidaren ardatz egituratzaile gisa, betiere aipatutako gaiak integratzeko ahalegina egiten bada. Irailaren 22ko tailerrean eztabaidarako agenda bat elkarrekin definitzeko egingo den ariketa, beraz, haietan oinarrituta egongo da.

Uztaileko tailerrean egindako hausnarketaren osagarri gisa (ikus saioaren memoria), parte-hartzaile batzuek iruzkin gehigarriak helarazi dituzte, eta horietako batzuk dokumentu honetan jaso dira hausnarketa elementu gisa, eztabaidarako agenda erabakitzeke garaian:

- Garrantzitsua izango da Europar Batzordearen Green Recovery Berreskuratze Planarekin konektatzea
- Garrantzitsutzat jotzen da prozesu hori Gipuzkoako udalekin lotzea
- Gazteak prozesuan sartzeko ahalegina egin behar da
- Prozesuak lan egin behar du informazioaren bidez balioak aldatzeko

---

<sup>1</sup> Proiektuetan planteatutako gaiak sakontzen edo zabaltzen zituzten gogoetak ez dira dokumentu honetan jaso, baina berreskuratu egingo dira gai bakoitza lantzen denean.

- Epe luzeko prozesuak direla ulertu behar da

Gainera, hainbat parte-hartzailek adierazi dutenez, hilean bi ordu gutxi dira aurrera egiteko, eta horietako batek hori konpontzeko egin duen proposamena da gai espezifikoak jorratzen dituzten azpitaldeetan lan egitea.

Aurreko oinarriak finkatu ondoren, irailaren 22ko tailerrean prozesua zentratuko da 2020ko urritik 2021eko maiatzera aurreikusitako zazpi saioetarako agenda partekatua definitzen. Agenda hori garatzeko planteatzen den eskema da taldeak zehaztea zein diren adituekin eztabaidatu beharko lirakekeen gai garrantzitsuak, proiektu bakoitza babesteko. Kontuan hartuta lehentasuna eman zaiola ekonomia zirkularri eta herritarren ligari buruzko proiektuak abian jartzeari, eztabaidak gai horiek landuko ditu lehendabizi.

Beraz, honela planteatzen da eztabaidarako agendaren eskema:

SAIOA	PROIEKTUA	ADITUEKIN BATERA EZTABAIDATUKO DEN ERRONKA / GAIA
2020/10/20	Ekonomia zirkularra	
2020/11/17	Ekonomia zirkularra	
2020/12/15	Herritarren liga	
2021eko urtarrila	Herritarren liga	
2021eko otsaila	Fiskalitate berdea	
2021eko martxoa	Fiskalitate berdea	
2021eko apirila	Gazteak klimaren alde	
2021eko maiatza <sup>2</sup>	Gazteak klimaren alde	

Agenda adostea ahalbidetuko duten gaiak lehenetsi ahal izateko, Rogelio Pozok aurkezpen bat egingo du irailaren 22ko saioan. Aurkezpen horretan, gai horietako bakoitza biltzen duen esparru orokor bat planteatuko du, eta, aldi berean, multzoari sendotasuna emango diona.

<sup>2</sup> 2021eko maiatzean, gainera, 2020ko uztaila eta 2021eko maiatza arteko zikloa ebaluatzeko ariketa bat egin beharko da.